



## **BIZILAGUNAK-LA FAMILIA DE AL LADO-NEXT DOOR FAMILY**

### **Igandeko bazkari berezi eta ezberdina**

**Ba al zenekien Gipuzkoan 112 nazionalitatetik gora daudela eta 100 hizkuntza inguru hitz egiten direla? Mundua zure etxeke atarian duzu eta datorren azaroaren 18an hobe ezagutzeko aukera daukazu.**

**Zer da Bizilagunak.** Gipuzkoako familiak, familia atzerritarrekin bilduko dira azaroaren 18an igandeko bazkaria konpartitzeko, eguerdiko ordu bietan. Gutxienez, 120 familiatik gora 60 bazkaritan.

**Beste inon?** Bizilagunak Europako beste zazpi herrialdeetan ere egingo dugu, egun berean, momentu berberean gauza bera gertatzen arituko da Txekia, Eslovakia, Malta, Portugal, Italia, Hungaria eta Belgikan. 2000 lagunetik gora elkarrekin bazkaltzen.

**Nork parte har dezake.** Familia batek. Edo norbanako batek. Nahi duenak, alegia.

Familia esaten dugunean, kontzeptu hori zentzu zabalenean erabiltzen ari gara eta gurean tokia daukate era eta sexu guztietakoek: Ama ezkongabeek, emakume bikoteek, gizon-zonkabeek, gizon-emakumeen bikoteek, seme-alabekin edo gabe, aiton-amonek hilobekin etab. etab. Bizitza bezalaxe!

Jadanik izena eman dute gizarteko pertsona ezagunek ere. Garbiñe Biurrun epailea dinamizatzaile izango da, Jonan Fernandezek ere parte hartuko du, Iñigo Lamarka Arartekoak eta bere senarrak familia bezala parte hartuko dute. Zerrenda luzea egiten ari gara.

**Zergatik Bizilagunak?** Hemengo eta kanpoko pertsona asko garelako elkarren artean ezagutu nahi dugunak, baina horretarako aukerarik aurkitzen ez. Aurreiritziak deseginarazteko modu eraginkorrenetako, zuzeneko harremana dela uste dugulako. Bertako eta atzerriko pertsonen arteko elkarbizikidetzeta eta elkar ezagutzeta bilatzen dituen ekimena da Bizilagunak. Elkarrekin, elkarren ondoan baino hobe.

Harreman berriak sortu ahal izateko aukera, lagun berriak ezagutu ahal izateko. Askotan gure aldamenean atzerriko familia bat dugu, ume atzerritarrek gure hurrekin doaz eskolara baina ez

[www.nextdoorfamily.eu](http://www.nextdoorfamily.eu)

[www.mugak.eu](http://www.mugak.eu)





dakigu ezer beraiei buruz. Eta atzerritarrak hemen bizita ere, askotan ez dute bertako pertsonekin harremanik izaten.

Bizilagunak ekimenarekin aitzakia aproposa izango dute bere jakin-mina ase, ezagutu eta beste jatorri, kultura, pentsamolde edo ohitura duen norbait ezagutu ahal izateko. Aurrez aurre ikusi elkarren arteko desberdintasunak ugariak direla eta beste gauza asko aldiz, berdin berdinak. Azken finean helburua da momentu dibertigarria pasatu beste ohitura batzuk ezagutuz, kolore ezberdineko azalaren azpian dauzkagun sentimenduak oso antzekoak direla ohartuz, horretarako denbora hartzen badugu behintzat. Baina Bizilagunaken parte hartzen ari bagara eta mahaiaren inguruan eserita bagaude hasiera batean ezezagun hutsak ziren lagunekin, hori deskubritzera iritsi nahi dugulako da, ezta?

Bestalde, Txekian 2004tik egiten dituzte urtero horrelako bazkariak eta topaketa horiei buruz egin dituzten ikerketetan ikusi dute bazkarietan parte hartzen dutenen erdiak, gero ere harremana jarraitzen dutela.

### **Nola parte hartu?**

**Familia bezala.** Familia bezala ulertzen dugu nolabaiteko senitarteko harremana duten bi pertsona. Ez zaigu harreman zuzena edo zeharkakoa den inporta. Bakarrik dauden lagunek ere ziur daukatela horrelako bikote edo familia ezagunen bat. Haiekin etor daitezela!

**Dinamizatzaille bezala.** Dinamizatzailleak bazkari batean parte hartuko duten bi familiak aurretik ezagutuko ditu eta bazkariaren egunean elkarren arteko aurkezpenak egingo ditu, beraiekin egongo da dena ondo joan dadin, izotza hausten lagunduko du...

Horregatik dinamizatzailleak, familia batek parte hartzeko izena ematen duen momentutik eurekin harremanetan jarriko da oinarrizko datu batzuk jaso ahal izateko; lanbidea edo zertan egiten duten lan, zaletasunak, hitz egiten dituzten hizkuntzak, janariaren bati alergia dioten, animaliak maite dituzten eta inportanteena, gonbidatu edo anfitrioi izan nahi duten.

Sartu [www.nextdoorfamily.eu](http://www.nextdoorfamily.eu) eta bete izena emateko orria

Deitu **943 321811** edo idatzi [info@mugak.org](mailto:info@mugak.org)

**Bazkaria non.** Bazkari bakoitza bi familietako baten etxean egingo da, anfitrioiarenean alegia. Bere *gazteluko* atea ireki nahi dituenarenean. Ba al dago harrera eta irekiera sinbolo hobegorik? Ongi etorria eta harrera islatzeko norberaren etxeke atea irekitzea baina aproposagorik ez zaigu okurrizten.

[www.nextdoorfamily.eu](http://www.nextdoorfamily.eu)

[www.mugak.eu](http://www.mugak.eu)





**Bazkariaren egunean zer.** Anfitrioeiek igandetako bazkari berezia prestatzen duten bitartean, plater tipikoren bat agian, dinamizatzaila gonbidatuekin iritsiko da, aurkezpenak egingo ditu eta hasiko da festa. Haurrak jolasean dabiltzan bitartean helduek hitz egiteko aukera izango dute eta bere gosea eta jakin-mina ase ahal izango dute.

**Postrea.** Eta hain bazkari bereziak maila bereko postrea merezi duenez, datorren **azaroaren 25ean, igandea, Bizilagunak-La Familia de al lado** ospakizunean parte hartu dugun guztiok Donostiako Kursaalako auditoriumean elkartuko gara bizitako esperientzia partekatu eta orain ere agerian jartzeko, bakoitzarentzat eta guztiontzako zein aberasgarria den elkarren arteko errespetuzko eta elkartasunezko harremanak sustatzen dituen jendarte anitz bat. Hau izango da aurtengo **Gipuzkoa Solidarioa III.**

Bizilagunak SOS Arrazakeriaren ekimena da. Eusko Jaurlaritza eta Hirugarren herrialdeetako Integrazioarako Funts Europearren laguntzarekin.

Lagun asko garelako horren bila gabiltzanak eta bere aldeko apustua egiten dugunak,  
**bila ditzagun elkarrekin bizitzeko moduak.**

Prentsa harremanak: Anaitze 943 321811. [komunikazioa@mugak.org](mailto:komunikazioa@mugak.org)

[www.nextdoorfamily.eu](http://www.nextdoorfamily.eu)  
[www.mugak.eu](http://www.mugak.eu)

